

# Juantxo Arriagaren bidaiak

Fernando Palaciosen Kontzertu didaktikoa  
Juan Krisostomo Arriagaren musika



## GIDA DIDAKTIKOA

Isabel Domínguez  
Eva Gómez  
Wolfgang Hartmann  
Ana Hernández  
Fernando Palacios

## **AURKIBIDEA**

1. Juan Krisostomo Arriaga (Bilbo 1806 – Paris 1826)
2. J.K. Arriagaren lanen katalogoa
3. Arriagaren garaia
4. Kontzertua: "Juanito Arriagaren bidaiak"
5. Kontzertuko musika-lanak
  - 1) "Esklabu zoriontsuak" operaren obertura.
  - 2) Sinfonia Re Maiorrea
6. Musika ariketak
  - 1) JUANITO ARRIAGAREN ORKESTRARENGANA HURBILDURIK
  - 2) AITAREN AHOLKUAK
  - 3) ERRITMOAK ETA AZENTUAK
  - 4) MINUETOA
  - 5) GURDIAK ETA ZALDIAK
  - 6) HERRIMINA ETA INSPIRAZIOA
7. Beste hainbat ariketa
  - 1) BILBOTIK PARISA
  - 2) BIDAI-EGUNEROKOA

BIBLIOGRAFIA

DISKOGRAFIA

ERANSKINAK

## 1. Juan Krisostomo Arriaga (Bilbo 1806 – Paris 1826)



Musika-egile bilbotarra 1806ko urtarrilaren 27an sortu zen, San Juan Krisostomoren egunean, hain zuzen ere. Horregatik jarri zizkioten Juan Krisostomo, Jakobo eta Antonio izenak; ingurukoek, hala ere, Juanito esaten zioten. Hortaz, Juan Krisostomo Wolfgang Amadeus Mozart sortu zen egun berean jaio zen Juanito, baina berrogei urte aurrerago. Biak ere musikari handiak izan ziren umetan, eta biek ala biek izan zuten, tamalez, bizitza laburra...

Poesia eta marrazkiarekin ere gozaten badu ere, musikaren munduan sartu zen Berriatuako elizako organujolea zen Juan Simon de Arriaga bere aitaren eskutik. Aurrerago, umearen dohainak ikusirik, Faustino Sanz Done Jakueko basilikako musika kaperako biolinjolearen ikasle izan zedin lortu zuen aitak. 1817an, 11 urte zituela, bere lehen konposizio-lana idatzi zuen: "Ezer ez eta asko", bi biolin, biola, txeloa, kontrabaxua, tronpa, kitarra eta pianoarendako oktetoa. Haren ama 1818an hil zen, eta hurrengo urtean "Esklabu zorionsuak" opera idatzi zuen, bere garaian Bilbon estrenatzea lortu zuena. Gure garairaino, ordea, haren obertura besterik ez da iritsi, beharbada piezarik ezagunena bihurtu dena.

1821ean Paris aldera jo zuen, eta bertan Luigi Cherubinek zuzentzen zuen Musika eta Deklamazio Errege Eskolan matrikulatu zen. Han, biolin ikasketekin jarraitzeaz gain, Armonia eta Kontrapuntua ikasi zuen François Fétis-ekin. 1825ean Orkestra Handirako Sinfonia Re Maiorrean lana amaitu zuen, aditu anitzen ustez haren lanik garrantzitsuenak.

1826ko urtarrilaren 16an edo 17an (ez dago erabateko adostasunik dataren gainean), 20 urte betetzear zegoela hil zen Parisen, seguruena tuberkulosiak jota. Hileta biharamonean egin zen Saint Roch elizan, eta hilotza Iparreko hilerrian ehortzi zuten, hobi komun batean... Berriz ere Mozartekiko paralelotasun latza.

Musikagilea hain gazte eta ustegabeen hil izanak, Juanito Arriagaren ibilbide emankor eta distiratsua eteteaz gain, haren lana ahazturan baztertua izatea ere ekarri zuen, eta ez zen ezagutzera emanen XIX mendeko larogeiko hamarkada arte, orduan berreskuratu baitzuen haren ondorengoetako batek haren zenbait lan eta, oroz gain, haren oroitzapena.

## 2. J.K. Arriagaren lanen katalogoa

### Bilbon idatzitakoak

1. *"Ezer ez eta asko"*, bi biolin, biola, txelo, kontrabaxu, tronpa, kitarra eta pianoarendako oktetoa. 1817.
2. *"Obertura"* Op.1, bi biolin, biola, baxua, flauta, bi klarinete eta bi tronparendako nonetoa. 1818.
3. *"Martxa militarra"* bandarentzat, Op. 2 1819.
4. Titulurik gabeko ereserkia bi ahots eta orkestrarentzat, Op. 3. 1819
5. *"Esklabu zoriontsuak"*, opera bi akto eta bost koadrotan. 1819.
6. Gai askotarikoa koartetoan, Op. 17. 1820.
7. *"O salutaris"* Op. 18, gizonaen hiru ahots eta harizko kintetoarentzat. 1820
8. *"Obertura orkestrarentzat"* Op. 20. 1821.
9. *"Stabat Mater"* Op. 21, ahots eta orkestrarentzat. 1821.
10. *"Hungariarra"* OP. 22, bariazioak biolinarentzat laguntzarekin. 1821

### Parisen idatzitakoak

11. *"Hungariarra"* Op. 23, aurrekoaren bigarren bertsioa. 1822.
12. *"Et vitam venturi"*, ihesa zortzi ahotsez Kredoaren hitzen gainean. 1822.
13. Hiru estudio edo "capriccio" pianoarentzat. 1822.
14. *"1er. Livre de Quatuors"*, hiru koarteto. Egilea bizi zelarrik argitaratua, 1824an.
15. *"Sinfonia orkestra handian, Re-n"*. 1824-1825.
16. *"Medea"*, Aria sopranoarentzat orkestraren laguntzaz. Datarik gabe.
17. *"All'Aurora"* (Ma tante Aurore), duetoa tenorea eta baxuarentzat orkestrarekin.
18. *"Edipo"*, Aria tenorearentzat orkestraren laguntzaz. Datarik gabe.
19. *"Erminia"*, eszena liriko dramatikoa soprano eta orkestrarentzat. Datarik gabea.
20. *"Meza lau ahotsez"*, galdua.
21. *"Salve Regina"*, galdua.
22. *"Agar"*. Duettoa tenore eta sopranoarentzat orkestrarekin. Arriagaren azken konposizioa. 1825.

### 3. Arriagaren garaia

Ondoren aurkezten dizuegun musikari zerrenda Arriagaren garaikideek osatzen dute, eta lagungarria izan daiteke haren garaian kokatzeko. Haietako batzuk musikagile handiak dira, besteak beste Beethoven, Luigi Cherubini (Parisko Kontserbatorioko zuzendaria eta Arriagaren irakaslea), edo biolinaren birtuoso bat, Nicolo Paganini.



Ludwig Van Beethoven  
(1770 - 1827)



Franz Schubert  
(1797 - 1828)



Karl María Von Weber  
(1786 - 1826)



Luigi Cherubini  
(1760-1842)



Nicolo Paganini  
(1782-1840)

## 4. Kontzertua: “Juantxo Arriagaren bidaiak”

Fernando Palacios egin zuen musika hautaketa eta idatzi zuen kontzertu honetako testua, Bilbon estreinatu zena 2006ko maiatzaean, Juan Krisostomo Arriaga musikagilearen jaiotzaren 200. urteurrena ospatzeko. Arriaga Antzokian estreinatu zen, jakina, eta berau emateko agindua Bilboko Orkestra Sinfonikoak izan zuen.



Arriaga Antzokia. Bilbo

Kontzertu honen bidez, Arriagaren musika ez ezik, haren bizitzaren zertzelada zenbait ere ezagutuko ditugu, 1821ean Bilbotik atera eta, ikasketak osatzera Parisa egin zuen bidaiaren aitzakian.



Juanito Arriagaren pasadizoak eta gogoetak haren zenbait lanekin tartekaturik ikusiko ditugu: “Esklabu zoriontsuak” lanaren oberturarekin, Sinfonia Re-n lanarekin eta Op. 1aren oberturaren sarrerarekin, hain zuzen.

Honetaz ari garela: ez ahaztu, gero, zapia eramatea kontzertura! Harekin lagun egingen diezue orkestrari eta Juanitori euren musika-bidaia zirraragarrian.

Arriaga antzokia egun.

## 5. Kontzertuko musika-lanak

### I. "ESKLABU ZORIONTSUAK" OPERAREN OBERTURA

**Historia:** *"Esklabu zoriontsuak"* opera 1819an idatzi zuen Juan Krisostomo Arriagak, hamairu urte zituela, eta haren ekoizpenean formato handiko lehen lan handia da. Bazen lehendik ere opera honen aurrekari bat gaztelaniaz, Luciano F. Comellaren (1751-1812) libretoa eta Blas de la Sernaren musika zituen. Ondoren, Arriagak libretoa berridatzi zuen, bi ekitalditara zabaldua, eta musika ere berriro konposatu zuen.

**Argumentua** Argelen garatzen zen XVIII mendearen erdialdera, bertara eraman zituztelarik preso noblezia espainoleko senar-emazteak bikotea. Ez da ezer zehatzik lan hau publikoaren aurrean eman zutela erakusten duenik, baina Espainiatik kanpo nolabaiteko ospea hartu zuen, itzal handiko zenbait musikaririk partitura ikusteko aukera izan eta, haren gaineko iritzia eman zutelako, besteak beste Manuel Garciak, izen handiko tenore eta musikagile espainiarra bera, eta F.J. Fétisek, Parisko irakasle eta musikagile belgikarra eta Arriagaren lehen biografoa. Egileak berak berrikusi zuen obertura, Parisen, 1823 eta 1825 bitartean, eta opera horretatik kontserbatzen den zati bakarra da, egilea gazterik hil eta, haren lana galdu eta ahaztu baitzen.

**Forma:** Obertura zera da, opera baten sarrera osatzen duen konposizio instrumentala. Hasiera batean, obertura publikoaren arretari heltzeko baliatzen zuten. Zenbaitetan, entzulea operak dituen musika gaietara hurbilazteko ere erabili izan da. Re maiorreko obertura hau honako atal hauek osatzen dute:

- Pastoral Andante: herri txikietako lasaitasuna gogorarazten duen melodia zabala eta dotorea darabil.
- Allegro: sonata forman planteatua –erakusketa bi gai desberdinez, A eta B, zubi txiki batez lotuak, garapena eta berrerakusketa-, nabarmena da bere izaera eszeniko eta adierazgarria, giro rossinianoa ekartzen duelarik gogora.
- Piú allegro: Gai aldetik aurrekoek ez bezalako edukia duen azken atal honek aurreko guztiak laburbiltzen ditu, eta azkenburu koda txiki bat dauka, Allegroren gai nagusia barne hartzen duena.

**Instrumentazioa:** darabilen orkestra taldea honako hau da: bi flauta, bi klarinete eta oboe, bi fagot, bi tronpa, tinbalak eta hari osoa lau aldetara. Egileak hariaren gainean jartzen du lanaren pisua, orkestrazioaren planteamendu klasikoari erantzunez. Haizeak kolorea emanez esku hartzen du, esaldien errepikapena eta kadentziak indartuz edo, garrantzitsuagoa dena, hariarekin solasean aritzeko, konposizioak aurrera egin ahala autonomia gehiago hartzen duela.

Erabilitako hizkuntza armonikoa eta tonala Klasizismoaren isla da, lan hau osatzean egilea gaztea zelako ez ezik, Espainian, garai hartan, estilo horrek artean irauten zuelako ere. Nabarmentzekoa da darabilen tarte dinamikoa, *pianissimotik* hasita *fortissimoraino*.

☞ Ikus "Esklabu zoriontsuak" obeturaren lehen orrialdearen partitura 1. Eranskinean.

## II. SINFONIA RE MAIORREAN

*Sinfonia re-n orkestra handirako*, Arriagaren lan sinfoniko garrantzitsuena, seguruena 1824 eta 1825 bitartean Parisen konposatua izanen zen, haren kuarteto bikainen ondoren. Lehen aldiz 1888an eman zen publikoaren aurrean, baina 1933 arte ez zen editatuko, eta orduan Bilboko *Arriagako Batzorde Iraunkorrari* esker egin zen.

**Forma:** Klasizismoa bitartean, sinfonia forma zera da, hiru edo lau mugimenduz osatutako konposizio instrumentala, orkestra batek interpretatzen duena. Mugimendu horietako bakoitzak gaiak antolatzeko era bati erantzuten dio. Beraz, lehenbiziko mugimendua sonata modukoa da (erakusketa, garapena eta berrerakusketa). Bigarrena *tempo* motelekoa eta izaeraz lirikoa da. Sinfonia klasikoa rondo erako mugimendu batez amaitu ohi da, alegia, errepika moduan erabiltzen den gai batez, bestelakoan artean tartekatzen dena estrofa moduan. Sinfoniak lau mugimendu baditu, hirugarrena *minueto* bat izaten da bere trioarekin, sinfonian rondoaren aurretik sartzen den dantza estilizatua berau.

Arriagaren sinfonia klasiko erakoa da, eta lau mugimendu desberdin aurkezten ditu, ondoko era honetan antolatzen direnak:

- *Adagio - Allegro vivace - Presto*: lehenbiziko mugimendu hau hiru ataletan zatitua da, beren tenpoek bereizirik. *Adagioa, re maiorrean* dagoen Sarrera handi bat da, ondoren garatuko den material musikala hasieratik aurkezten duena: hiru soinuren beherezko diseinua eta nota baten erreiterazioa, etengabeko taupada moduan. *Adagio* hau benetan atariko edo sarrera erakoa da.



*Allegro Vivace* sonata erakoa da, bere planteamendu klasikoaz, Erakusketa bi gai desberdinez (A eta B), Garapena bi gai horien motiboetatik abiatuta eta Berrerakusketa labur bat, *re menor* tonua berresteko *koda* baten lana egiten duen *Presto* batean amaitzen dena. *Allegro*ko A gaiak *solo-piano / tutti-forte* kontrajarpena du, eta mugimendu honi izaera indartsua eta erabakiorra ematen dio.

☞ *Ikus Sinfoniaren lehen orrialdearen (I Adagio) partitura 2. eranskinean*

☞ *Ikus I Allegro Vivacearen hasieraren partitura (2 orrialde) 3. eranskinean*

- *Andante*: gehienbat lirikoa eta gogorazlea den *la maiorrean* dagoen mugimendu honek A gai bat aurkezten du soinubakarreko melodia eran, haria dela ardatz eta oboeek erantzuten diotela. Honen aurrez aurre, melodia zabal eta dotoreko B gaia da bigarren. Erakusketa honek bigarren atal baterantz jotzen du, aurkeztutako motiboak labur garaturik, ondoren berriz ere A eta B gaiak azalduko direla, bata bestearen ondotik.

☞ *Ikus II Andantearen hasieraren partitura (2 orrialde) 4. eranskinean*

- *Minuetto: Allegro – Trio*: Sinfoniaren hasieran bertan utzitako *re maiorreko* tonua berreskuratu egiten du *minuettoak*. *Trioarekin* batera, ABA eraketa hirukoitza ezartzen da, mugimendu honek bere-berea duena. *Minuetto*arentzat lau motibo desberdin erabiltzen ditu, elkarren gainka aurkezten direnak.

☞ *Ikus III Minuettoaren hasieraren partitura 5. eranskinean*

- *Allegro con moto*: Azken mugimendu hau A gai baten gainean ezarria da, bertatik B bigarren gaia eratortzen dela dirudiela. *Re menorren* hasi eta maiorren amaitzen da, hacia zen modu berean, alegia. Guztia motibo bakarraren inguruan dabilela dirudi, bere baitatik sortuko balitz bezala, izaera malenkoniatsua baina bizkorra hartzen duela.

☞ *Ikus IV Allegro con motoaren hasieraren partitura (2 orrialde) 6. eranskinean*

**Instrumentazioa:** Orkestra taldeak bi flauta, bi oboe, bi klarinete, bi fagot, bi tronpeta eta bi tronpa, tinbalak eta haria bost aldetara ditu. Nabarmenezkoa harian grabeeek duten pisua, biolinekin solasean, bai eta haizea eta hariaren arteko solasa ere. Tarte dinamiko zabala baliatzen du.

## 6. Musika ariketak

### 1. JUANITO ARRIAGAREN ORKESTRARA HURBILDURIK

*Irakasleak kontzertu batera joateko prestatzen du ikaslea, bertan orkestra bat "ikusita eta entzun" eginen duela gogoan izanda.*

Orkestra bat musikari talde bat da, elkarrekin lanean aritzen dena, konpainia batean edota futbol nahiz saskibaloi talde batean aritzen diren pertsonen moduan. Honek zera esan nahi du, bakoitzak bere eginkizuna izanik ere, guztiek helburu bakarra dutela.

Orkestra baten kasuan, guztien lana pieza musikal bat "produzitzea" da, eta "konpainia" honetako kide "espezialista" bakoitzak hots berezi bat produzitzeko ardura du, aukeratutako pieza musikala besteekin batera osatuko duena.

Orkestran instrumentu desberdinak jotzen dituzten musikariak dira "espezialistak".

Kontzertu honetan honako hauek entzun eta ikusiko ditugu: *lagundu zeure ikasleei zein den zein esaten.*

- (a) Zeharkako xirula
- (b) Oboea
- (c) Klarineta
- (d) Fagota
- (e) Tronpa
- (f) Tronpeta
- (g) Biolina
- (h) Biola
- (i) Biolontzelloa
- (j) Kontrabaxua
- (k) Tinbalak

#### Zer jakin behar dugu orkestrari buruz?

- Zein izen dagokio argazki bakoitzari? (ikus hurrengo orria)
- Nola atera hotsa instrumentu horiei? (igurtziz – putz eginez – kolpeak joaz...)
- Ba al dugu instrumentu-familiarik osatzerik? Zein dira elkarren antzekoak?
- Zein da orkestran kide gehien duen instrumentua? 🎵
- Zein ordenamendu dute instrumentuek agertokian? 🎵

---

🎵: *Galdera hauek eztabaidatu edo erantzun beharko lirateke kontzertuaren ondoren. Irakasleak ikaslea motibatu, haren jakinmina piztu, besterik ez du egin behar, kontzertuaren aurretik.*

JUANTXO ARRIAGAREN ORKESTRAREN MUSIKA-TRESNAK



## 2. AITAREN AHOLKUAK


*Esklabu zoriontsuak. Obertura, II. Gaia*

Kontzertuan narratzaileak aire bat kantatuko du ikasleekin batera. Bertan, Parisa joan aurretik "Juantxo" eta bere aitaren artean zuten egoera ekarriko du gogora, bai eta hiriburu handiko arriskuak zirela eta aitak egindako badaezpadako ohartarazpenak ere.

"Galde - erantzun" hauek zeure ikasleekin kanta ditzazula iradokitzen dizugu:

*Kontzertuan oso arin interpretatzen da, ikasleek ikasi ondoren, saiatu arin kantatzen: ezinegonaz erantzuten dugunean bezala, beste zerbaitetan aritu nahian bezala...*

**Allegro**



Ez jo - ka tu\_ez e - dan se - ku - la!

Nahi-ko, nahi-ko, nahi-ko, naaahi - ko!

- "¡EZ JOKATU, EZ EDAN SEKULA!"
- "NAHIKO, NAHIKO, NAHIKO, NAAAAHIKO!"
- "KONTUZ, LAPURRAK DAUDE ETA"
- "NAHIKO, NAHIKO, NAHIKO, NAAAAHIKO!"

Bestelako hitzak ere jartzen ahal dituzue, gurasoen ohartarazpenak, jostaketara joateko lagunen gonbiteak, mahaira bazkaltzera edo afaltzera etortzeko deiak, ohetik jaikitzeak, hortzak garbitzeak...

Laminazko instrumentuak baldin badituzue bigarren bertsio hau instrumentuen laguntzaz interpretatzen ahal duzue.



¡No juegues, no be - bas ja - más!

¡Valevalevale va - le!

X.S., X.A.

X.B.



Juanitoren aitaren aholku guztiak ezagutzeko gogoz geratu bazarete, hona hemen kontzertuan entzunen duzuen partitura eta bere testua. Saia zaitetze melodia hain "opera moduko" hau ikasten:

Ez jo - ka \_\_\_tu\_ez e - dan se - ku - la!

Kon - tuz, la - pu - rrak dau - de\_e - ta,

Pa - ris a - rris - ku - tsu - a da \_\_\_ ten - tu\_han -

diz ez ba - za - bil \_\_\_ tza zai - la\_i-zan - go da \_\_\_

-a. Jen - de - ta - sun han - diz jo - ka\_e - za - zu, e - ta\_au -

ke - ra du - zu - ne \_\_\_ an be - rriz buel - ta - tu.

### 3. ERRITMOAK ETA AZENTUAK

Juanito Arriagak buruan darabiltzan gogoeta eta ideietatik abiatuta konpontzen du bere musika. Hitzetatik musika sortzen da... edo bestela da, eta musika sortzen da lehenbizi, gero hitz bihurtzeko? Ikasgelan eztabaidatzen ahal duzue. Guk bigarren aukeraren gainean lan egingen dugu, musikatik sortuko da testua.

**2 eranskinean** aurkituko duzue J.K. Arriagaren Re maiorreko Sinfoniaren 1go mugimenduaren partitura orkestralaren lehen orria. Bertatik aterako ditugu hasiera honen ezaugarri diren bi motibo laburrak. Hitzetan jartzen ahal ditugu. Horretarako, erritmoari ez ezik, nota bakoitzaren azentuzioari ere erreparatu beharko diogu:

#### 1. Motiboa




Galde-erantzun moduan itzul genezake:  
"Nor da? / Jon naiz" etab.

Edo hitz bakanez:  
"Hara!", "Lagun"

- Bilatu aukera gehiago lehenbiziko motibo hau eta hurrengoa "itzultzeko":

#### 2. Motiboa



#### 4. MINUETO

Re Maiorreko Sinfoniaren hirugarren mugimendua den minueto hau Arriagaren garaiko ohiko dantza da.

Minueto honen musikak, bereziki, oso izaera kaontrajarria du.

Arriagaren lan honen grabazio bat ez baduzue eskura, minueto hau osorik honako web honetan entzuten ahal duzue:

<http://www.epdlp.com/compclasico.php?id=938>

Gainera, III mugimendu honen hasieraren partitura **5. eranskinean** ikus dezakezue.

#### Musika honen "osagaiak" honako hauek dira:

- Musika urduri bat  
(Nola jo dezakegu hau? Ze instrumentu erabil dezakegu?)
- Musika lasai bat  
(Nola jo dezakegu hau? Ze instrumentu erabil dezakegu?)
- Eskaileran goiti eta beheiti  
(Nola jo dezakegu hau? Ze instrumentu erabil dezakegu?)
- Hiru kolpe eta egon  
(Nola jo dezakegu hau? Ze instrumentu erabil dezakegu?)
- Bi "jauzi uretara"  
(Nola jo dezakegu hau? Ze instrumentu erabil dezakegu?)

#### Hurrenkera honako hau litzateke:

URDURI – LASAI – URDURI  
5 MAILAKO 4 ESKAILERA (/\  
3 KOLPE + LASAI  
2 JAUZI  
LASAI – URDURI  
4 ESKAILERA  
3 KOLPE + LASAI

Ikasleekin "egitura musikal" hau hobeki gogoratu ahal izateko ohar grafikoez idatz daiteke, ikasleek eurek eratu edo erabaki dezaketena.

## Nola sortu idazkera grafiko bat?

1. Lehenbizi ideia musikalekin egokitzen diren irudiak aurkitu.

Adibidez:


Musika urduri bat



• Musika lasai bat



• Eskaileran goiti eta beheiti



• Hiru kolpe eta egon



• Bi "jauzi uretara"



2. Erabili hauek edo beste irudi batzuk partitura grafikoa osatzeko, lehen ikusitako egituraren arabera. Paper jarraia erabiltzen ahal duzue, kartulinak, eta zuen partitura bertan jarri, ikasle guztiek ikusi eta segitzeko moduan.

3. Jo musika hau musika edo izaera bakoitza talde desberdinei emanaz. Iradokizuna:

1.-2. Taldeak: urduri – lasai efektua

3. Taldea: eskaileran goiti eta beheiti / hiru kolpe eta egon

4. Taldea: bi "jauzi uretara"

4. Ikasleekin ariketa hau egin ondoren, lotu ideia hauek kontzertuan entzuten duten musikarekin, alegia, adieraziezue oraingo hau euren idelen emaitza izan dela, eta kontzertuan zera entzuten dugula, "Juantxo Arriaga" gazteak nola sortu zuen bere musika orkestrarentzat, nola egile honek "eratu" zuen bere partitura.



## 5. GURDIAK ETA ZALDIAK

Ikasleak motibarazteko ideia erabilagarria izan daiteke pelikula baterako "soinu banda" sortzeko kontua, zuek izanen baitzarete efektu sonoro hori sortzeko arduradunak.

- Izenburua "Gurdiak eta Zaldiak" izan daiteke

Gure buruari hauxe galdetu beharko diogu:


- Zein soinu edo hots behar ditugu?  
Gurpilak – zaldiaren ferren hotsak – tutuaren deia – gurdiaren zuraren kirrin-karrankak – bideko harrixintzarren hotsak...
- Nola egin ditzakegu guk soinu horiek?  
Eguneroko gauzak erabiltzen ahal dituzu, esaterako ur mineral botil hutsak (adi horiek bihurtzean sortzen den soinuari), hosto lehorrak, harriak, etab...  
Bilatu zein beste gauza izan dakigukeen lagungarri hots horiek eragiteko.

Gogoan izan beharreko beste hainbat gauza:

- Nola entzuten da gurdi pixkanaka hurbiltzen edo urrutiratzen delarik?
- Nola entzuten da zaldien apatx-hotsa abiada bizian doazelarik edo gelditu arte motelagotzen ari direlarik...?

Kontzertu honetan entzuten dituzuen erritmo batzuek zaldiak laukoan gogorarazten ahal dizkigute:

*Erritmoa:*



- Saiatu ikasleekin zalgurdiaren eszena hau gogoratzen edo iradokitzen duten beste erritmo batzuk aurkitzen eta ematen.

## 6. HERRIMINA ETA INSPIRAZIOA

Parisa iritsita, hiri honetako edertasunaz bete-betean gozatu zuen Juanitok baina, aldi berean, herriminaren arra du barnean. Horregatik dio:

- *“Non dago itsasoa hiri honetan? Ibaia bai, bada nonahi hemen, baina... itsasorik ez, ordea!*

Itsaso-min hori da, hain zuzen, inspirazio iturrietakoa Arriagarentzat. Izan ere, minak lan anitz konposarazi baititu historian barna. Sentimenduek motibatzen dituzte egileak, euren oroitzapenek etorria pizten diete eta doinu bihurtzen dituzte gogoeta horiek.

Juanito Arriagak bere herriko itsas-kanta bat gogoratu eta sartu egin zuen bere *Re Maiorreko Sinfonian (Il Andante)*. Kontzertuan oboeek jota entzunen duzue. Jatorrizko bertsiolan aurki dezakezue **4 eranskinean (konp. 8-14)**, baina hemen gelarako egokitua eskaintzen dizugu:



- Asma ezazue kanta baten hitza eta kanta ezazue.
- Gogoan al duzue Juantxoren herriko bestelako “itsas kantarik” (*Boga, boga, mariñela...*)
- Ziurrenik gelan herri askotatik etorritako ikasleak izanen zarete, bizitzera hona etorritakoak baina ongi gogoan dituzuenak zuen herria, bertako ohiturak, folklorea... Mintza zaitzte gai honi buruz. Euren herrietako kantak eta aireak kantatzeko eskaiezue ikasleei.
- Bere herriko oroitzapenez gain, Parisko egonaldian jasotako eragina ere ekarriko digu gogora Arriagaren musikak. Zein kanta lotu izan diogu Parisko irudiari? (*La vie en rose...*)

## 7. Beste hainbat ariketa

### 1. BILBOTIK PARISA

Bilboko sorlekutik Parisa Juantxok egin zuen bidaia deskribatzen du kontzertuak. Komenigarria eta, batez ere, interesgarria litzateke umeei bi hirioi buruzko zenbait datu izatea. Honi dagokionez ariketa anitz egin daitezke eta, hona hemen iradokizun batzuk:

- Kokatu bi hirioi mapa fisiko batean eta politiko batean. Zein eskualde igaro behar dira hiri batetik bestera joateko? Zein mendi, ibai... zeharkatu behar dira?
- Ikasi zein alde dagoen Bilbotik Parisa kilometrotan. Interneten badira lagungarriak izan daitezkeen gidak eta laguntzaileak (adb. [www.guiacampsa.com](http://www.guiacampsa.com))



- Juantxo Arriagak zalgurdian egin zuen bide hori eta, beraz, bidaia luzea da. Zein garraibide erabil genezake egun? Zenbat denbora eginen genuke, alde-aldera, haietako bakoitza erabilita?
- Zer dakigu bi hirioi buruz? Elkarrekin mintza zaitezketen hiriotako gastronomiaz, turismo gune interesgarriez, museoez, bertatik igaro diren ibaietz, bertan mintzo diren hizkuntzez...

## 2. BIDAI-EGUNEROKOA

Ikusi dugu, bada, Juanitok nola bihurtzen dituen maiz pentsamenduak musika. Beste hainbestetan, ordea, bidai luzea egunerokoa idazteko probesten du. Irakur ezazue ikasgelan F. Palaciosen kontzerturako idatzitako gidoiaren ondoko zati hau:

*Bidaia amaiezinean aurrera doan bitartean, hirira iritsitakoan egiteko asmoa duena idazten du Juanitok egunerokoa.*

- *"Lehenik nire musika joko dut Kontserbatorioan. Erabateko ustea dut jende guztiaren gogokoa izanen dela".*

- *"Bigarrenik: modako jauregiak bisitatuko ditut, ea konteren batek nire musika begiz jotzen duen eta beka onen bat ematen didan".*

- *"Hirugarrena: ostaturen batean lekutuko naiz eta musika sortzeari ekinen diot, etenik gabe".*

- *"Laugarren: hirian barna ibiliko naiz paseoan. Esan didatenez paristar neskak hagitz politak dira".*

*Eta halaxe jarraitu zuen Juanito Arriaga gaixoak, buruari eraginez eta bere gogoeta guztiak egunerokoa idazten.*

*Bidaia amaigabeak jarraitzen duela, Juantxok bere egunkarian idazten du hirira heldutakoan egiteko asmotan dabilena.*

Zer jaso dezake bidai-eguneroko batek?

- Azken agurreko zirrara.
- Ibilbidean izandako gora-beherak
- Iritsi ondorenerako asmoak.
- Norberaren herriko oroitzapenak, etxeak...
- ...

Proposatu ikasleei "Juantxo Arriagaren bidaiak" kontzertuari buruzko eguneroko bat idazteko. Kontzertuaren prestaketa eta kontzertua bera jaso dezakete eguneroko horretan. Zenbait ideia edo irizpide eman diezaiekezue:

- Ikasgelan kontzertuaren aurretik egindakoak.
- Espero dutena: zer entzun eta ikusiko dut? Gogokoa izanen ote dut?
- Kontzertuaren egunean: bidaia, auditorioa...
- Kontzertuaren ondotik: solasak, iritziak, iradokizunak...

Interesgarria litzateke egunerokoa irudiez hornitzea, marrazkiak direla, sarrera bera, esku-papera... utziezue, ea harritzen zaituzteten.

Ariketa honen osagarri gisa, zera eska diezaiekezue ikasleei, handitzean gordeko dituzten txikitako hiru oroitzapen esateko, musika lan batean, kontakizunen batean, koadroren batean edo pelikularen batean jasotzeko modukoak izan litezkeenak.

## BIBLIOGRAFIA

**ARRIAGA, E.:** "El maestro Arriaga y los cuartetos en Bilbao". *Revista de Vizcaya*, maiatzaren 16a, 1866, 51. orr.

**ARRIAGA, V.:** "Observaciones sobre los apuntes biográficos del Maestro Arriaga". *Revista de Vizcaya*, uztailaren 16a, 1866, 215. orr.

**ERESALDE, J.:** *Resurgimiento de las obras de Arriaga*, argitaratu gabeko esku-idatzia. Bilbo, 1917.

**ERESALDE, J.:** "El maestro Arriaga". *Revista de Vizcaya*, 1866. "Los esclavos felices", Bilbo 1935. "Resurgimiento de las obras de Arriaga", argitaratu gabeko esku-idatzia. Bilbo, 1917.

**FÉTIS, F.J.:** *Biographie universelle des musiciens et Bibliographie générale de la musique*, I. lib. Paris, 1866.

**GARCÍA DEL BUSTO, J.L.:** *Sinfonia re maiorren, Esklabu zoriotsuak Obertura eta harizko koartetoa 2 zenbakia la maiorren lanen CDko edizioari egindako oharra*. Ganberako Orkestra Ingelesa. Zuzendaria, Jesús López Cóbos. Rasumovsky Laukotea. EL PAÍS.

**GÓMEZ AMAT, C.:** "Historia de la Música española", 5. lib. XIX. mendea, Alianza Música, 1984.

**GÓMEZ RODRÍGUEZ, J.A.:** *Juan Krisostomo Arriagaren orkestra lanen CDko edizioari egindako oharra*. Le Concert des Nations, La Capella Reial de Catalunya. Director, Jordi Savall. ASTRÉE AUDIVIS.

**GÓMEZ RODRÍGUEZ, J.A.:** "Los cuartetos de Arriaga", *Cambio de Tercio*-ren barnean, Koartetorako musika espainola, 37 eta ondorengo orr. Caja de Asturias, Oviedo 1995.

**HOKE, S.K.:** "Juan Crisóstomo de Arriaga: A historical and analytical study", University of Iowa, 1983.

**RODAMILÁNS, R.:** "En busca de Arriaga". Minima, Bilbo, 2006.

**ROSEN, B.:** *Arriaga, The Forgotten Genius. The Short Life of a Basque Composer*. University of Nevada, Reno. Nevada 1988.

**SAGARDÍA, A.:** *Juan Krisostomo Arriaga musikagilea*, Bizkaiko Junta de Culturak antolatu eta Bilboko Sociedad Filarmonicán 1956ko urtarrilaren 27an emaniko hitzaldia.

**TRANCHEFORT, F-R.:** *Guía de la Música de Cámara*. Alianza Diccionarios.

## DISCOGRAFIA

- *Sinfonia re maiorren , Obertura Esklabu zoriontsuak eta Harizko koartetoa 2 zenbakia la maiorren.* Ganberako Orkestra Ingelesa. Zuzendaria, Jesús López Cobos. Cuarteto Rasumovsky. EL PAÍS.
- *Juan Krisostomo Arriagarren orkestra lanak.* Le Concerts des Nations, La Capella Reial de Catalunya. Zuzendaria, Jordi Savall. ASTRÉE AUDIVIS.



# 1. ERANSKINA

Los esclavos felices  
Obertura

- 1 -

*Pastorale*  
Andante

Flautas I-II

Clarinetes I en Do  
Clarinete II en Do / Oboe

Fagotes I-II

Trompas I-II en Re

Timbales

Violines I

Violines II

Violas

Violoncellos y Contrabajos

*Pastorale*  
Andante

Fl I-II

Cl I (Do)  
Cl II (Do)

Fg I-II

Tp I-II (Re)

Tim

Vn I

Vn II

Vla

Vc  
Cb



## 2. ERANSKINA

### Sinfona Re Maiorrea

#### I. Adagio

Adagio

Flautas I-II  
Oboes I-II  
Clarinetes I-II (en Do)  
Fagotes I-II  
Trompas I-II (en Re)  
Trompetas I-II (en Re)  
Timbales  
Violines I  
Violines II  
Violas  
Violonchelos  
Contrabajos



**3. ERANSKINA**

Sinfonia Re Maiorrea

I. Allegro Vivace



J. C. Arriaga. Sinfonía en Re. I - 9







Fl I-II  
Ob I-II  
Cl I-II (Do)  
Fg I-II  
Tp I-II (La)  
Vn I  
Vn II  
Vla  
Vc  
Cb

Fl I-II  
Ob I-II  
Cl I-II (Do)  
Fg I-II  
Tp I-II (La)  
Vn I  
Vn II  
Vla  
Vc  
Cb

J. C. Arriaga. Sinfonía en Re. II - 95



5. ERANSKINA

Sinfonia Re Maiorrea

III. Minuetto

**III**

**MINUETTO**

Allegro  
a 2

Flautas I-II  
a 2  
*f*

Oboes I-II  
a 2  
*f*

Clarinetes I-II  
(en Do)  
*f*

Fagotes I-II  
a 2  
*f*

Trompas I-II  
(en Re)

Trompetas I-II  
(en Re)

Timbales

Violines I  
Allegro  
*f* *p*

Violines II  
*f*

Violas  
*f*

Violonchelos  
*f* *p*

Contrabajos  
*f*


J. C. Arriaga. Sinfonía en Re. III - 107

**6. ERANSKINA**

Sinfonia Re Maiorrea

IV. Allegro con moto

**Allegro con moto**



Flautas I-II

Oboes I-II

Clarinetes I-II  
(en Do)

Fagotes I-II

Trompas I-II  
(en Re)

Trompetas I-II  
(en Re)

Timbales

Violines I


Violines II

Violas

Violonchelos

Contrabajos

J. C. Arriaga. Sinfonía en Re. IV - 121



7

Fl I-II

Ob I-II

Cl I-II  
(B $\flat$ )

Fg I-II

Tp I-II  
(B $\flat$ )

Tbn I-II  
(B $\flat$ )

Cym

Vn I

Vn II

Vla

Vcl

Db

J. C. Arriaga. Sinfonía en Re. IV - 122